GIZATEAKO GIZARTERATZEKO ETA LANERATZEKO ENPRESEN MARKO ETIKOA

ETIKA BATZORDEA

Gizatea

2023ko ekaina

GIZATEAKO GIZARTERATZEKO ETA LANERATZEKO ENPRESEN MARKO ETIKOA

Dokumentu hau **Gizatearen Kode Etikoaren irakurketa sintetiko bat da.**

Helburutzat du Gizatea osatzen duten **laneratzeko enpresen jarduera orientatzen duten irizpideak** modu praktikoan zehaztea.

Laneratzeko enpresen misiotik abiatuta, Etika Batzordea honako hauek inplikatzen dutenaren **oinarrizko konpromiso etikoak** identifikatzen saiatu da:

1) enpresa izatea;
2) laneratzeko enpresa izatea;
3) laneratzeko enpresa izatea beste batzuekin batera.

Laneratzeko enpresen **praktikarekin lotuta** konpromiso horiek laneratzeko enpresen leku eta funtzio sozialaren **kartografia etiko** bat ematen dute. Gure xedeari eta gure jardueraren zentzuari buruzko galderari erantzuten diote.

Konpromiso horietako bakoitzetik **40 orientazio** ondorioztatzen dira; horiek aukera ematen digute modu zehatz eta errazean identifikatzeko gure egunerokoan horizonte etiko hori zein gradutan eta nola zehazten den.

Marko etiko hori laneratzeko enpresa guztiek erreferentziatzat hartu eta hura betetzeaz arduratzeko duten borondate partekatuaren isla da. Gure jardueraren kalitate etikoari buruzko erradiografia eskaintzen duen eta gure izaera bereizgarria agerian uzten duen tresna izan nahi du.

GIZARTE BIDEZKOAGOA ETA EKITATIBOAGOA LORTZEKO BALIOAK DITUZTEN ENPRESAK GARA.

GURE MISIOA

Gizateak eta laneratzeko enpresek konpromisoa dute bazterketa -egoera edo -arriskuan dauden pertsonen enplegagarritasuna hobetzearekin eta inklusioarekin, ohiko enplegua lortzeko bide gisa.

Zaurgarritasun egoeran dauden pertsonek ohiko enplegua lortzea sustatzeko lan egiten dugu,

Pertsona horiei laguntzen diegu, beraien kualifikazio pertsonala hobetzeko aukerak emanez

Haien garapen pertsonalean eta sozialean eragiten duten beste alderdi batzuk kudeatzeko laguntza ematen dugu.

HIRU ARDATZEK DEFINITZEN DUTE GURE MARKO ETIKOA

01

ENPRESA IZATEA

02

LANERATZEKO ENPRESA IZATEA

03

GLE IZATEA BESTE BATZUEKIN BATERA

ERAKUNDEA

LAGUNTASUNA

HARREMANAK

GURE KONPROMISOAK

ENPRESA GISA



Hainbat sektoretan kalitatezko zerbitzuak eskaintzen ditugun enpresak gara. Gure eginkizunak betetzeko behar diren pertsonak eta baliabideak ditugu, beste edozein enpresak bezala.

BEREN JARDUERA EKONOMIKOA INTERES OROKOR BATI LOTUTA GARATZEN DUTEN ENPRESAK GARA

- Gure jarduerak balio sozial aitortua du, eta, horren ondorioz, **Interes Ekonomiko Orokorreko Zerbitzuak** ematen dituen erakunde izendatu gaituzte.
- Gure kudeaketaren bidez, proiektu serio, **bideragarri eta ekonomikoki jasangarria** sendotu nahi dugu.
- Hirugarren parteen aurrean bermatzen dugu gure erakundea **irabazi-asmorik gabekoa** dela.
- Gure jarduera sektore jakin batean integratzen da, eta horrek erreferentzia-esparru gisa balio du gure **lan-harremanen barne-eredua** zehazteko.
- **Gardentasuna** gure jardueraren eta haren emaitzen berri aldiro-aldiro ematen lagunduko digun bitarteko bihurtuta lan egiten dugu.

ENPRESA GISA GURE HORIZONTE ETIKOA ZEHAZTEN DUTEN ADIERAZLEAK

[Interes orokorreko zerbitzuak]

- ✓ laneratzeko enpresen jardueraren balio soziala

1.1. balantze sozialaren lanketa

[Bideragarritasun ekonomikoa]

- ✓ jasangarritasun ekonomikoa

1.2. urteroko emaitza ekonomikoen bilakaera

1.3. jasotako dirulaguntzaren ehunekoa/diru-sarrerak guztira

[Irabazi-asmorik gabeko izaera]

- ✓ sortutako soberakinen jomuga

1.4. soberakinen balizko jomugak:

- **sortutako gizarteratzeko lanpostuak**
- **proiektua handitzea**
- **berrikuintza eta ikerketa**
- **instalazioen/prozesuen modernizazioa**
- **hobekuntza eta inbertsio proposamenak postuan**
- **auditoria sozialean jasotako beste batzuk**
- **beste batzuk (adierazi zein)**

[Sektoreari dagozkion lan-harremanak]

- ✓ lan-esparru sektoriala edo propioa egokituta eta adostuta

1.5. jarduera bakoitzerako hitzarmen arautzaileak

- ✓ soldaten kohesiorako barne-akordioak

1.6. gutxieneko - gehieneko ratio diferentziala

- ✓ enpresa-batzordea edo lan-elkarrizketarako mahaia

1.7. adiskidetze-ekintzen kopurua/urteko

1.8. garapen profesionaleko barneko akordioak

[Gobernanzta-Parte-hartzea-Gardentasuna]

- ✓ barneko parte-hartzearen dinamika formalizatua

1.9 urteroko bileren kopurua

1.10 langileen parte-hartze aktiboko batzordeak/lantaldeak

1.11 pertsonak entzutea eta erabaki pertsonalak hartzean eragin aktiboa izatea erraztuko duten sostengu, egitura edo protokoloak

- ✓ kontu-ematea

1.12 urteroko barneko topaketa / batzarra

GURE KONPROMISOAK

LANERATZEKO ENPRESA GISA

Gure eginkizuna da hainbat arrazoirengatik prestakuntza-, lan- edo gizarte-aukeretatik baztertuak izan diren pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko prozesu bat garatzeko oinarri gisa balioko duen lana eskaintzea.

ZAURGARRITASUNAREN ZIRKULUA HAUSTEKO GIZARTERATZEKO ETA LANERATZEKO PROZESU-IBILBIDEEN BITARTEZ LAN EGITEN DUGUN LANERATZKO ENPRESAK GARA

- **Garapen pertsonalean eta sozialean** eragina izatea helburu duen lan-jarduera erregularra izateko aukera errazten dugu.
- Irisgarritasun-neurriak eta posturako egokitzapenak jartzen ditugu martxan, edo/eta pertsonak ekoizpen-prozesuetan sartzea errazteko **beharrezko egokitzapenak**.
- Prestakuntza tekniko-profesionala eta beste gaitasun batzuen **hobekuntza** ahalbidetzen duten prestakuntza eta gizarte prozesuetan laguntzen dugu. Horrek guztiak pertsonen **enplegagarritasuna** eta ongizatea hobetzen ditu.
- Ordaindutako lana eskaintzen dugu. Horrek aukera ematen du, denboran etenik izan gabe, **pertsonen bizitzako oinarrizko baldintzak arautzeko**.
- **Parte-hartzeko** erakundeak gara. Parte-hartzea gizarteratzeko beste tresna bat da.
- Laneratze lanposta duten pertsonen arteko desberdintasunarekiko **errespetua** bermatzen dugu, eskura dugun informazioa **konfidentzialtasun** osoz tratatuz.

LANERATZEKO ENPRESA GISA GURE HORIZONTE ETIKOA ZEHAZTEN DUTEN ADIERAZLEAK

[Pertsonalizazioa]

- hobekuntza enplegagarritasunean

  2.1. Pertsona guztiek laguntza-plan pertsonal bat dute, pertsonalizatua eta bereizia, partekatua eta irisgarria, eta, ahal bada, akreditazioarekin

  2.2. Laguntasunerako tresna/metodologia espezifikoak erabiltzea [Enplegagarritasun Faktoreen Eskala]

- lana betetzeko egokitzapenak, laguntzak eta bateragarritasun-neurriak eskura izatea

  2.3. LLT ratioa/gizarteratze lanpostuak

  2.4. baliabideen eta laguntzen zerrenda (pertsonalak, sozialak eta lanekoak)

[Aukera-berdintasuna]

- enplegagarritasuna hobetzea bermatzen duten garapen profesional eta pertsonaleko ibilbide eta prozesuak definitzea

  2.5. gizarteratze lanpostuak / langile-kopurua ratioa

  2.6. GLEaren helbururako trebatutako eta kontzientziatutako egiturazko langileen kopurua

- ohiko merkatura laneratzea

  2.7. laneratze-tasa

- ekitate-irizpideak kontratazioan

  2.8. ekintza positiborako aplikatutako neurriak

- sozialen eta laneko lorpen eta emaitzen ebaluazioa

  2.9. GLLaren gogobetetze-inkestaren emaitza (pertsona guztien banakako balorazioa eta laneratzeko enpresaren ibilbidean duten eragina)

  2.10. GLEaren eskaintzaren kalitatea ebaluatzeko tresna (check list)

  2.11. laneratzeko enpresaren urteko autoebaluazioa, pertsonekin garatzen ari den prestazioei buruzkoa, ikuspegi global batetik

[Errespetua eta Konfidentzialtasuna]

- konfidentzialtasuna eta pribatutasuna

  2.12. konfidentzialtasun-akordioaren protokoloa

- ingurune segurua

  2.13. abusuaren, jazarpenaren edo tratu txarren aurkako protokoloa eta dokumentazio-bide egokiak

GURE KONPROMISOAK

LANERATZEKO ENPRESA GISA BESTE BATZUEKIN BATERA

Ekonomia solidarioari buruzko ikuspegi bera partekatzen dugu. Inguruneari begira, autonomiaz lan egiten dugu, laneratze-enpresen antolakuntza-esparruaren barruan eta kanpoan kooperazioa bultzatzen saiatuz, beste entitate eta erakunde publiko eta pribatu batzuekin lankidetzan

GIZATEAN INTEGRATUTA, LANERATZEKO ENPRESEN ARTEKO LANKIDETZAN ETA ELKARREKINTZAN LAN EGITEN DUGU.

- **Ekonomia solidarioaren** printzipioak eta balioak gure jardunaren erreferentzia-esparru gisa hartzen ditugu.
- **Erantzunkidetasunaren** irizpidearen arabera bideratzen ditugu gure harremanak, eta horrek lehentasuna ematen dio, beste interes batzuen aldean, gizarteratze-postuen babesari.
- Gizatea elkartearen jardueretan eta helburuak lortzen laguntzen dugu, batzarretara eta gainerako ekitaldietara bertaratuz eta lantaldeetan **aktiboki parte hartuz.**

INGURUNE SOZIALAREKIN KONPROMETITUTA, BESTE ERAKUNDE PUBLIKO ETA PRIBATU BATZUEKIN LANKIDETZAN ARITZEN GARA.

- Administrazio publikoekin, enpresekin eta beste erakunde batzuekin lan egiten dugu, laneratze-enpresa gisa egiten dugun lanaren izaera **eraldatzailea** indartzen laguntzeko.
- Gizartean erabakiak hartzeko ekimenak eta/edo zentroak sustatzen, babesten eta horietan parte hartzen dugu, lan-bazterkeria **eragiten** duten baldintzetan eragiteko.

BESTEEKIKO GURE HARREMANEN HORIZONTE ETIKOA ZEHAZTEN DUTEN ADIERAZLEAK

[Ekonomia solidarioarekiko konpromisoa]

- ✓ Gizatearen edo beste batzuen balantze soziala

  3.1. Balantze Sozialaren lanketa ezarritako epean

[Erantzunkidetasuna]

- ✓ beste GLE bateko gizarteratze-postuen subrogazioa

  3.2. gizarteratzeko banakako ibilbideari enpresa-jardueraren gainetik lehentasuna ematea

- ✓ lizitazioetan parte hartzeko interesaren gardentasuna

  3.3. laneratzeko enpresen arteko lankidetza-esperientziak

- ✓ enpresa arruntekiko aliantzak

  3.4. enpresekin egindako hitzarmenen kopurua (lankidetza-hitzarmena edo antzekoa)

[Parte-hartzea eta inplikazioa]

- ✓ parte-hartzea Gizatean

  3.5. parte-hartzea Gizatearen Batzarrean
  3.6. Gizateak eskatutako informazioa/ datuak/ proposamenak ematen dira (adibidez, inbertsio-beharrak)
  3.7. parte-hartzea Gizatearen lantaldeetako batean

- ✓ parte-hartzearen kalitatea

  3.8. parte-hartzea Gizateak bultzatzen dituen ebaluazio-ekimenetan (gogobetetze-inkestak, jardunaldien ebaluazioa, etab.)
  3.9. ekimen berrien proposamena Gizatearen esparruan (adibidez, kontratu erreserbatuei buruzkoa)

- ✓ ingurunearekiko harremana

  3.10. harremanak AAPPkin (udalak, aldundiak, tokiko eragileak, etab.) eta harreman mota (hitzarmena, dirulaguntza)
  3.11. sare sozioekonomikoko beste eragile batzuekiko harremana (eskualdeko mahaiak, enpresak, gizarte-erakundeak, etab.) eta harreman-mota (lankidetza-hitzarmena, azpikontratazioa, etab.)
  3.12. parte hartzen den sareak

- ✓ praktika eraldatzaileak bere jardueraren arloan

  3.13. 2030 Agenda: GJHen lerrokatzea GLE-en helburuekiko
  3.14. Kudeaketa parte-hartzaileen ereduen txertaketa
  3.15.ingurune integratzaileagoetan eragina duten proiektuetan/ekimenetan parte hartzea

ZER ERABILERA DU ESPARRU ETIKO HONEK LANERATZEKO ENPRESENTZAT?

- Gizatearen Kode Etikoaren esparruan hartutako konpromisoak laneratzeko enpresen eguneroko jardunean nola gauzatzen diren identifikatzeko balio du.

- Erakunde bakoitzari aukera ematen dio horizonte etiko horretan inplikatutako alderdiei buruzko auto-hausnarketa egiteko eta bere kudeaketaren esparruan ekintza zehatzak planteatzeko.

- Erreferentzia kuantitatiboak eta kualitatiboak eskaintzen ditu, laneratzeko enpresen marko etikoa zehazten den dimentsioren batean jardunbide egokiak definitzen eta sustatzen laguntzen dutenak.

- Laneratzeko enpresek beren jarduerari dagokionez duten konpromiso etikoa zehazten du, eta horregatik aintzatetsia izan daiteke.

- Laneratzeko enpresen gizarte-balioaren aintzatespena eta haien jardueraren eragin eraldatzailea indartzen ditu.

NOLA ERABIL DEZAKEGU DOKUMENTU HAU?

- Gizatearen GLE-en marko etikoko konpromisoak izenpetuz.
- Abian jarriz, barne-mailan, marko etiko honetan jasotako orientabideen multzoari dagokionez, laneratzeko enpresa bakoitzaren egoera baloratzeko aukera emango duen ekimen bat.
- Marko etiko horren hiru ardatzen dimentsioren batean barne-mailan lan egitea ahalbidetuko duen ekintza espezifikoren bat bultzatuz.
- GLE-en marko etikoa osatzen duten balioekin lotutako alderdi jakin batzuei buruzko praktika onak partekatuz.
- Gizatean konpromiso etikoari lotutako jardunbide egokiak identifikatzeko eta aztertzeko dinamiketan parte hartuz.

Gizatea